

## Pastoralaz

Beharrezkoa zen pastoralaz agert ledin lan bat. Xiberoak, bai Eüskal Herri osoak eta beste güzietan jakitateari lotürik direnek Eüskalzaindia esker dezakee.

Heben eginik denaren üdüriko zerbait badü bai ehün bat urte nonbait ez dela lantürik izan. Herellek züan agerrarazi.

Ez da pastoral bakotxa ikertürik, bena bai pasterala bera antzerki mota bezala. Beraz, aipatzen da zer den, nontik dügün, nola sortzen den herrian emaiteko asmüa, nola emanaldia antolatürik den, zer diren arauak eta beharrezkoa dela horien etxekitzea.

Idazkiak badütü bere berezgoak, historia bat, bizitze bat, trajeria bat eskentzen düana, hiru zatitan: lehen perediküa, jelkaldiak eta azken perediküa. Ahozka berezi batetan mintzatzen dira arizaleak. Bakotxa ari da, pastorelean düan bere izatearen arabera. Orozgain bi kente dira gorriak eta urdinak, zelükoak eta ifernükoak, hau da gaixtoak eta honak. Hor sartzen dira ere kantoreak, müsika, dantzak.

Erranik da nontik dügün: eta düdarikgabe, gure jakitatean hoinarritürik da, beste jeieki batean, hala nola maskaradak. Hein bat barnatik erakutsirik da nola Herelle gogor izan zen eta nola ere oker zoala. Gük diogü gurea dela eta agertzen dügü zertan, bere izate osoan. Ez da atzokoa, bena bai aspaldikoa.

Nahi izan dira ere lan hontan barnatü pastoralaren emanaldiaren antolaketak eta nola iragaiten den emanaldiaren egüna eta beste.

Arrenküra handia aipatzen da ea etxekiko dügünez, oraiko mentean hedatzen den mündükotzearen eretzean.

Oro har, Xiberoko aberastarzün horrez, libürü hori oso baikor elkitzen da.

Junes Casenave\_Harigile